Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Cipriano Zubizarreta Zubia

Eskoriatza, Gipuzkoa (1918-2009)



Aurkibidea

Biografia



Bolibar elizateko Eraña auzunean jaio zen. Baserrian ume-umetatik lanean aritu ondoren, 14 urterekin Eskoriatzako lantegi batean hasi zen lanean. Gerora, TESAn ere lan egin zuen. Elkarrizketan bere emaztea ere agertzen da (Pakita Alegria Uribe-Etxebarria)

Zintak

ESK-038

- **Proiektua**: Deba Eskualdeko Ahotsak - Eskoriatza.
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data**: 2006-11-14
- **Iraupena**: 63 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k)**: Elortza, Kepa - Agirrebeña, Aintzane

ESK-039

- **Proiektua**: Deba Eskualdeko Ahotsak - Eskoriatza.
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data**: 2006-11-14
- **Iraupena**: 60 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Alberdi Bilbao, Itziar

Pasarteak

1. Zenbait datu biografiko

- **Erref**: ESK-038/001
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:01:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:
1918-09-16an jaiotakoa, Bolibar auzoan, Eraña baserrian.

Transkripzioa
- Zer urtetan jaixotakua?
- “18, 18, 1918, 16 setiembre”
- Oso ondo, oso ondo.
- Larogeta zortzi urte!
- Ondo, ondo baiña, guapo zare.
- Eta zer, oin zer ikusi bihar dozu?
- Ba, aber, kontaidazu... nun jaixotakua?
- Jaixota?
- Bai.
- Golibarren.
- Gollibarren?
- Bolibarren.
- Eta han nun, eliza onduan, edo auzunaren baten, edo zer baserrittan?
- Eraña, Eraña!
- A, begira!
- Eraña, “caserio” Eraña!
- Eta zelakua, zelakua zan zeuen basarrixa?
- E?
- Zelakua zan basarrixa?

- Bazkaixa?
- Basarrixa.
- Pakita: Baserrixa zelakue zan!
- Baserrixa, ba, oin, jausitta ya, bringauta dao erdittik. Ura dauko azpixen, ta... baiña orduen basarri ona. Etxe ona.

2. Ikazkintzan aitonarekin

- **Erref**: ESK-038/002
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:01:15. **Bukatu**: 00:02:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:
Umetan aitajaunarekin ibiltzen zen ikatza egiten. Eraña auzunean zeuden baserri izenak aipatzen ditu.

Transkripzioa
- Aittajauna ta... gu ikazgiñan ibiltzen gitzen. Ni mutikua, eskolatik fan ta gabien han lo eitten nauen nik basuen.
- Txondorra zaintzen?
- Txondorrak ein ta [betegarrixa] bota ta... Horreik danok eitten gittuen.
- Eta, bestela, Eraña basarrixa, han inguruan ermittaren bat be badakazue, ezta?
- E: Bai.
- Ermittaren bat badau han...
- San Andres.
- San Andres?
- Bai, San Andres dau han.
- Eta basarri asko zeren inguruan?
- E?
- Zenbat baserri aazen Erañan?
- Ba, Erañan lau... lau basarri ta gero gorau beste bi, sei. Dauz Erañagoitti ta [Burdintxuena], bi; gero Akixona, hiru; Erañagoitti, lau; Txorixana beste bat, bost; eta guria, sei.
- E: Oin barrixek be eindda daz, e?
- E?
- E: Oin barrixek be eindda daz.
- Oin barrixek eindda egon biher daue, bai. Oin barrixek eindda daaz. Erañagoikuen barrixe eindda da. Ta gero [Burdinxonien] be beste txalet bat eindda ta... Oin barrixek eindda daz. Zaharra zan Eraña [goikue] etxe haundi bat ta ha bota ein daue ta oin barrixa ein daue lobak edo...

3. Eraña baserria

- **Erref**: ESK-038/003
- **Iraupena**: 0:00:35. **Hasi**: 00:02:50. **Bukatu**: 00:03:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:
Eraña baserriaren inguruko zenbait datu; ama zen bertakoa.

4. Umetako bizimodua baserrian

- **Erref**: ESK-038/005
- **Iraupena**: 0:03:00. **Hasi**: 00:03:40. **Bukatu**: 00:06:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:
Umetan baserrian egin behar izaten ziren lanak aipatzen ditu: ganadu-zain... Eskolara joan aurretik esnea banatzen zuen herrian. Ume-umetan argindarrik ez zegoen etxean; karburoa eta petrolioa erabili behar izaten ziren. Lehenagoko bizimoduaren inguruko gogoetak.

Transkripzioa
- Ba ni Erañan hazitta nau hamalau urtera arte.
- Eta basarrixan lanak be eingo zenduzen, ezta, umetan?
- Ba, ganauek zainddu ta...
- Ganuak zaindu ta...
- Eskolara etorten nitzen ni egunero kalera.
- E: Itturrittik ura eruen ta... E?
- Marmittakada bat esne ekarten nauen beherutza ta gero eskolara.
- E: Ta gero itturrittik ura.
- E?
- Itturrittik ura. Itturritik ura.
- Bai, Leteko itturrittik ure be bai eruten nauen.
- Nungo itturrittik?
- Leteko itturritttik.
- Hamen etxie [...].
- Ure erateko.
- Zeuk umia ziñanian ezautu zenduan argi elektrikua-ta etxian? Bonbillia-ta ezautu zenduzen edo gerora ipini zian?
- E: Ez...
- Argixa?
- Bai.
- [Neu nauela].
- E: E?
- [Neu nauela] ifiñi euen. Aurretik egoten gitzen karburuekin ta, [...] argixa ein ta...
- Eta karburua ze zan?
- Karburua [erosi] ta karburua bota apur bat lapiko batera, katxarrora, ta katxarruek, ba, eitten euen sua. Argi zer bat, motel bat. Hareaz egoten gitzen.
- Karburuaz aparte petroleua edo...?
- Petroleuekin gero, ondion, gero petrole...

- Geruao... Oseake, lehelengo karburua ta gerora petroleua.
- Bai, lehelengo karburuekin, gero petroleuekin.
- Eta gero ya argixa?
- Gero ya Bolibarren saltua ifiñi euen ta handik argixa.
- Eta nun ipini zeben saltua?
- Hor beheko [arruen], Zubixetan, hor ifiñi euen saltua. Oin [be] han [dao] depositua ondion. Oin han dao herriko uren zera...
- E: Depositto zaharra.
- ... depositue eindda. Bera lehengo depositto zaharrakin, aumentauta, herriko urakin herrixen depositua. Ta lehen auen han saltorako behien makinarixia ta goixan depositua; ta errekia, ba... goittik behera etorten zan ura ta...
- Eta urik etortzen ez zanian? Urik etortzen ez zanian, orduan argirik ez?
- Orduen argirik ez. Batzuetan argixe egoten zan ta uda partien-ta gehixenien argi barik.
- E: [...] ixotu ein biher bestioi.
- Ene! Ha bizimodue orduen, e? Oingo moduen...
- Bai, bai. Asko kanbixau da, e?
- E: Onbre!
- Eta aittajunak-eta bonbillia ikusi zebenian ze esaten zeben?
- Aittajuna ta be zaharrak zien ya bonbillia ifiñi euenerako.
- Hori, ba. Eta, orduan, eurendako inpresiño gehixao ondiokan, ez?
- Haik akordau be ez zien eitten hola izen biher euenik be argixa, argixa hola emun biher euenik be. Ta guk, barriz, bagekixen kalien-ta ikusten gauen ta, argixa ta.
- E: Ya zaharrak zien aittajuna-ta.
- Guk ikusten gauen zelan zan hori, baiña haik ez auen siñestu be eitten holan argixa emun biher euenik.

5. Antzinako bizimodua

- **Erref**: ESK-038/006
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:06:40. **Bukatu**: 00:08:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:
Ur-korronterik ez zuten baserrian bera umea zenean. Leteko iturrira joaten ziren ur-bila; errekara joaten zen ama arropak garbitzera. Ama jostuna zen eta baserriz baserri ibiltzen zen lanean. Cipriano gaztea zela familia osoa etorri zen herrira bizi izatera. Antzinako bizimoduari buruzko gogoetak.

Transkripzioa
- Eta ur-korrientia grifuan? Ezautu zenduzen etxe...
- Aurrekaldien erreka bat [pasatzen zan], handitxik ura.
- Handik ekartzen zenduen?
- Erateko ez, erateko Leteko itturrittik. Ura, barriz, mosue garbiketan-ta errekara.
- Errekara... Eta erropak garbitzera-ta errekara be bai?
- Errekara. Bai. Holaxen lehenauko zaharrak
- Bizimodu gogorra, ez?

- E: Oin balegoz haik [bizi...] ze esango ete leukie? Ene!
- Oin botoiari emon ta erropa guztiak labadorian garbittuta.
- Ya lo creo!
- Orduan, ama ze ibiltzen zan, errekara juaten zan erropak garbitzera, lixibia eittera?
- Ama josten ibiltten zan.
- Josten ibiltzen zan, e?
- Ta amandria ta.
- Eta ze eitten zeben, ba? Liñua edo eitten zeben?
- E?
- Gorutan eitten zeben?
- E: Ez.
- Ez... Joskiñak zian, orduan?
- Josten bai, josten baserririk baserri ibiltzen zan! Mendiolara ta faten zan handik.
- E: Makiñie eskuetan hartu ta...
- Bai, makiñie eskuetan hartu ta [...] zerien baserririk baserri.
- Eta nun ikasi zeban berak josten? Hemen kalian edo?
- Ez dakit, hoixe ez dakit nun ikesi euen ez dakit.
- Orduan, basarriz basarri makiñiakin josten. Eta hori ze izaten zan piezia amaittu arte basarrixan egoten zan?
- E: Bai, baiña goxien jun ta gabien etorri [...].
- Bai, bai.
- Amaittu arte han geratzen zan...?
- Bai, [...]. Gero kalien bizi gitzen gero.
- E: Gero kalera bajau zien.
- Gero kalera etorri gitzen eta kalien bizi gitzen.
- Ederra kanbixua, ez?
- Gero ni fabrikara fan nitzen esku-lanera, horra Uribarrenera esaten jakon orduen. Horra fabrikara sartu nitzen hamalau urtekin. Ta, gero, ba, gerrie etorri zan ta gero gerra-denporan gerrara.

6. Umetako bizimodua baserrian; ikazkintza

- **Erref**: ESK-038/008
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:08:55. **Bukatu**: 00:11:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:
Aitajaunarekin ikazkintzan ibiltzen zen basoan. Txondorra nola egiten zuten azaltzen du; ikatza zaintzen nola aritzen ziren. Eskolara joan eta iluntzean txondorra zaintzera joaten zen.

7. Ikazkintzaren inguruko zenbait azalpen

- **Erref**: ESK-038/009
- **Iraupena**: 0:03:55. **Hasi**: 00:11:00. **Bukatu**: 00:14:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Natura » Meteorologia

Laburpena:
Basoan egurra bota eta bertan egiten zuten txondorra. Hiruzpalau txondor egiten zituzten. Gaiaren inguruko hainbat azalpen interesgarri ematen ditu: txondorra nola egiten zuten; nola kargatu, e.a.

8. Ikazkintza lanak

- **Erref**: ESK-038/010
- **Iraupena**: 0:02:17. **Hasi**: 00:14:55. **Bukatu**: 00:17:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:
Txondorrari sua goitik ematen zitzaion; ikatza ez zen erretzen, egosi egiten zen. Eguerdian baba-lapikoa jaten zuten. Aitajaunari laguntzera beste senide batzuk ere joaten ziren.

9. Ikazkintza kontuak

- **Erref**: ESK-038/011
- **Iraupena**: 0:02:43. **Hasi**: 00:17:12. **Bukatu**: 00:19:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Ikazkinak eta txondorrak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:
Txondorrak zenbat denbora behar izaten zuen egosteko; txondorra nola "desegiten" zen ikatza ateratzeko. Ikatza lantegietara saltzen zuten (Unión Cerrajera, e.a.).

10. Ordua nola igartzen zuten antzina

- **Erref**: ESK-038/013
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:20:40. **Bukatu**: 00:22:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:
Antzinako bizimodua; erlojurik ez eta izarrei eta eguzkiari begira jakiten zuten zein ordu zen.

11. Baserriko lanak

- **Erref**: ESK-038/014
- **Iraupena**: 0:03:25. **Hasi**: 00:22:30. **Bukatu**: 00:25:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:
Baserriko lanak. Soroan lan asko egiten zuten; garia, artoa... Antzinako bizimodua; gari-jotzea nola egiten zuten. Azalpen interesgarriak ematen dituzte.

12. Gariaren inguruko lanak

- **Erref**: ESK-038/015
- **Iraupena**: 0:02:45. **Hasi**: 00:25:55. **Bukatu**: 00:28:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:
Gari-jotzea antzina harri-losa batean egiten zen; poliki-poliki gauzak aurreratzen joan ziren. Gariaren inguruko lanen azalpena; auzolana.

13. Garia eta artoa baserrian

- **Erref**: ESK-038/016
- **Iraupena**: 0:02:35. **Hasi**: 00:28:40. **Bukatu**: 00:31:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:
Baserri guztietan ez zen garia egun berdinean heltzen; auzolana. Gariak lan ugari du; lan-zerrenda. Artoa eta garia non gordetzen ziren; arto-zuriketa errotara eraman aurretik.

14. Errotara garia eta artoarekin

- **Erref**: ESK-038/017
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:31:15. **Bukatu**: 00:33:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko lanak » Artoa
- Baserria » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:
Errotara nora joaten ziren azaltzen du. Garia eta artoa zakuetan eramaten zuten; errotariari nola ordaintzen zitzaion.

15. Arto-zuriketa

- **Erref**: ESK-038/018
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:33:15. **Bukatu**: 00:34:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Baserria » Baserriko lanak » Artoa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
Artoa gauetan garantzen zuten; familia giroa.

16. Anbotoko Mari

- **Erref**: ESK-038/019
- **Iraupena**: 0:03:55. **Hasi**: 00:34:20. **Bukatu**: 00:38:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:
Sorgin kontuak; Anbotoko Mari. Argi bat pasatzen ikusten zutenean, "Anbotoko Señoria" zela esaten zen.

17. Karobiak Bolibar auzoan

- **Erref**: ESK-038/020
- **Iraupena**: 0:02:55. **Hasi**: 00:38:15. **Bukatu**: 00:41:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:
Karobiak ezagutu zituen auzoan; baserritarren arteko elkar-laguntza. Karearria nondik ekartzen zuten; basotik ota ekartzen zuten karobiari su emateko. Karobia nola betetzen zen; sua nola ematen zitzaion.

18. Karegintza

- **Erref**: ESK-038/021
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:41:10. **Bukatu**: 00:43:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:
Karea zertarako erabiltzen zuten azaltzen du. Karobitik karea nola ateratzen zuten. Zenbat denbora behar izaten zuen kareak erretzeko; zenbatero egiten zuten karea.

19. Karea zertarako erabiltzen zuten

- **Erref**: ESK-038/022
- **Iraupena**: 0:00:40. **Hasi**: 00:43:10. **Bukatu**: 00:43:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:
Karea ongarri bezala erabiltzen zela kontatzen du.

20. Abereak baserrian

- **Erref**: ESK-038/024
- **Iraupena**: 0:00:35. **Hasi**: 00:44:30. **Bukatu**: 00:45:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:
Ardirik ez zituzten izan baserrian; astoak, idiak, behiak bai.

21. Idiak; uztarriak

- **Erref**: ESK-038/025
- **Iraupena**: 0:02:25. **Hasi**: 00:45:05. **Bukatu**: 00:47:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Lanbideak » Arotzak
- Natura » Meteorologia

Laburpena:
Idien inguruko azalpenak: nolakoak ziren; zertarako erabiltzen ziren. Uztargilea kanpotik etortzen zen. Uztarria egiteko nolako egurra behar den kontatzen du; zuhaitza noiz bota behar den; ilargiaren eragina egurra botatzeko orduan.

22. Baserritarrak feriara joateko ohitura

- **Erref**: ESK-038/026
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:47:30. **Bukatu**: 00:48:25

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:
Feriatara joateko ohitura zuen aitak. Arrasateko feria astero-astero izaten zen; egun handia zen baserritarrentzat.

23. Gripe urtea Eskoriatzan

- **Erref**: ESK-038/027
- **Iraupena**: 0:03:10. **Hasi**: 00:48:25. **Bukatu**: 00:51:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak

Laburpena:
Gripe urtean jaio zela kontatzen du Ciprianok; garai gogorrak izan omen ziren. Medikuak odola ateratzen zien gaixoei bizia salbatzeko. Medikuak zaldiz ibiltzen ziren orduan baserri inguruetan.

24. Hil-kanpaiak

- **Erref**: ESK-038/028
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:51:35. **Bukatu**: 00:53:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:
Hil-kanpaiak desberdinak izaten ziren gizon edo andrazkoendako; oraindik ere mantentzen da ohitura hori.

25. Elizaren eragina gizartean

- **Erref**: ESK-038/029
- **Iraupena**: 0:03:15. **Hasi**: 00:53:25. **Bukatu**: 00:56:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:
Klase desberdinetako elizkizunak egoten ziren: primerakoak, e.a. Elizaren inguruko kontuak; debekuak. Baraurik joan behar izaten ziren jauna hartzera; mezara joaten ez zena gaizki ikusita egoten zen auzoan. Azkenengo urteetan erlijio gaietan eman diren aldaketak.

26. Eskoriatzako ehulea

- **Erref**: ESK-038/031
- **Iraupena**: 0:00:43. **Hasi**: 00:57:42. **Bukatu**: 00:58:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Lihoa (linua) eta ehuleak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:
Amandreak goruetan egiten zuen; ehulearen lana.

27. Artilearekin haria nola egiten zen

- **Erref**: ESK-038/033
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 01:01:00. **Bukatu**: 01:02:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:
Artilearekin haria nola egiten den azaltzen du. Amandreak gauetan egiten zuen haria, neguan batez ere.

28. Artilezko galtzerdiak

- **Erref**: ESK-039/001
- **Iraupena**: 0:00:30. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:00:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
Artilezko galtzerdiak, koltxoiak.

29. Euskararen erabilera; erdara eskolan

- **Erref**: ESK-039/002
- **Iraupena**: 0:03:55. **Hasi**: 00:00:30. **Bukatu**: 00:04:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Herriko eskolara joan zen; irakaslearen zigorrak. Zer ikasten zuten; dena

erdaraz. Euskararen erabilera. Erdaraz jakitearen garrantzia soldadutza garaian.

30. Umetako jolasak; pilotarako zaletasuna

- **Erref**: ESK-039/004
- **Iraupena**: 0:03:15. **Hasi**: 00:05:45. **Bukatu**: 00:09:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Garizuma eta Errauts Eguna
- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:
Umetako jolasak; txirikilatan nola egiten zuten. Garizuma garaiko jolasa izaten zen txirikila. Mutilek pilotan plazan egiten zuten; pilotarako zaletasuna.

31. Umetako jolasak: tortolosak

- **Erref**: ESK-039/005
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:09:00. **Bukatu**: 00:10:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Garizuma eta Errauts Eguna

Laburpena:
Neskek tortoloska egiten zuten; hau ere garizuma garaiko jolasa izaten zen.

32. Gerra Zibila Eskoriatzan

- **Erref**: ESK-039/008
- **Iraupena**: 0:02:25. **Hasi**: 00:13:30. **Bukatu**: 00:15:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Gerra garaiko hainbat azalpen: tropak nondik sartu ziren, soldaduak non geratu ziren, Amaiur batailoia. Intxortako sarraskia.

33. Gerra aurreko giro politikoa

- **Erref**: ESK-039/009
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:15:55. **Bukatu**: 00:17:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:
Giro politikoa Eskoriatzan gerra aurreko urteetan. Errepublikanoak, karlistak...

34. Gerrako kontuak; Amaiur batailoia

- **Erref**: ESK-039/013
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:23:15. **Bukatu**: 00:24:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Amaiur batailoia. Cipriano Teruelgo frontean egon zen gerra garaian.

35. Teruelgo ofentsiba

- **Erref**: ESK-039/015
- **Iraupena**: 0:05:10. **Hasi**: 00:25:10. **Bukatu**: 00:30:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Gerrako kontuak; Guadalajaran egon zeneko zenbait pasadizo aipatzen ditu. Teruelgo frontean bizi izandakoak kontatzen ditu.

36. Eskoriatzarako itzulera gerra ostean

- **Erref**: ESK-039/020
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:36:35. **Bukatu**: 00:38:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:
Gerra zibila amaitu zenean, nondik nora ibili zen soldadu. Melillan 16 hilabete egin zituen. Eskoriatzara itzulera; herria nola aurkitu zuen.

37. Lan merkatua gerra ostean

- **Erref**: ESK-039/025
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:42:10. **Bukatu**: 00:44:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Boom industriala
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:
Herrira itzuli ondoren, erraz aurkitu zuen lana. TESAn lan egin zuen; zer fabrikatzen zuten. Lan-baldintzak.

38. TESA lantegia

- **Erref**: ESK-039/026
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:44:30. **Bukatu**: 00:46:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:
Lanaren urrats desberdinak azaltzen ditu; lanaren inguruko azalpenak. Emakumeak lanean.

39. Emakumea lan-munduan

- **Erref**: ESK-039/028
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:47:20. **Bukatu**: 00:49:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:
Pakitak ere TESAn lan egin zuen, biltegian. Ezkondu ondoren emakumeak lanean jarrai zezakeeen, baina gehienak etxean gelditzen ziren.

40. Industria ezagunak Eskoriatzan

- **Erref**: ESK-039/031
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:50:20. **Bukatu**: 00:51:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:
Eskoriatzako industria ezagun batzuk aipatzen dituzte.

41. Inguruko herriekin harremana

- **Erref**: ESK-039/033
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:54:15. **Bukatu**: 00:56:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna

Laburpena:
Inguruko herriekin harremana nolakoa izan den azaltzen dute.
Aretxabaletakoekin ez dira sekula ongi konpondu; Arrasatekoekin berriz, bai.

42. Herriko jaiak

- **Erref**: ESK-039/034
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:56:00. **Bukatu**: 00:57:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:
Herriko jaiak nola ospatzen ziren; San Pedro eguna izaten zen jai-egun handiena. Garai batean musika, sokamuturra, lasterketak, e.a. egoten ziren.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-16

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com